



Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




absurdo zentzugabea	Naroa, jendea kokoteraino dago Gabonetako otarrekin egiten diren zozketa absurdoekin!	85
adats ilajea, ile luzea	Adatsak gehiegi luzatu zaizkiola erabakitzen duenean, amak moztan dio tximak makinilla elektrikoarekin.	52
ahapeka isilean, xuxurlaka	“Ederra eta Piztia”, esaten dute ahapeka Bilintx institutuko mihi gaiztoek.	57
ahul makala, mengela, maskala	Jimbo, ez bota errua klaseko ahulenari .	82
aise erraz	Bukaneroak aise nagusitu dira lehenengo norgehiagokan, sei eta hiru.	96
aitajaun aitona, aitabitxia	...Donostiako nerabe guztien aitajauna bihurtu balitz bezala.	116
aitzakia estakurua, desenkusa	Gabonen aitzakia aprobetxatu behar dugu.	89
alajaina bai horixe!, arraioa!	...baldintza serioak, alajaina .	97
aldrebestu endredatu, ganoragabetu	—Bai horixe. Erabat aldrebestu ziren kanutoarekin baliente-baliente hasi zirenean!	124
alena halakoa	...entzun oihartzuna / txotxolo alena ...	107
alu madarikatu, demontre	Berrito telefono alu horrekin engantxatuta zaude?	17
arlote trauskila, zarpaila, grazia bakoa	Ez zara txoropito hauek pentsatzen duten bezain arlotea ...	65
arrangura atsekabea, kexa	...pentsatu du mutikoak, arranguraz , eta etxera oinez doan bitartean...	13
asaldatu larritu, aztoratu	Amaia asaldatu egin da mutikoa tenore horretan ilusi duenean.	108
astapotro astakirtena, basatia, piztia	Astapotoak bezala tratatzen gaituzte!	44
asumitu onartu	Zapaburu izateko jaio zinen, eta asumitu egin behar duzu!	61
atariko sarrerakoa, hasierakoa	...Gabonetako oporren atarikoak , benetan intentsuak izan dira Bilintx institutuan.	93
atondur ordenatu, apailatu, txukundu	...bukatu ondoren, eurek jaso eta atonduko dute dena.	98
atralaka errieta, liskarra, sesioa	...hango liskar, hango atralaka , hango nahaste-borraste, hango zarata, hango burrunba eta hango purrustadekin kokoteraino jarrita...	9
azaldu agertu, heldu	Nikolas Egidazu goizeko hamarretarako azaldu da.	113
aztoratu kezkatu, arduratu	“Jode, Mandela, zure heriotzak Bilintxeko irakasle guztiak aztoratu ditu. Eta hauek aztoratzen direnean, plasta hutsak bihurtzen dira!” pentsatu du...	31
babalore ergela, leloa	Zazpiak laurden gutxi, baina babalorea oraindik ez da azaldu.	19
babu papaua, kokoloa	Zubiak kokoloak lotsa gehiegi pasatuko luke publiko aurrean babuarena egin behar izanez gero.	55
balantzaka alderoka, zabuka	Balantzaka ari dira, alkoholarekin zeharo epelduta.	119
baldar traketsa, dorpea	Baina Bilintx institutuan, orokorrean, baldar antzean doa ikasturtea.	8




bedeinkatu goitua, zorionekoa, ditzoso	Hemen kontatuko diren abentura eta abenturen protagonista nagusia, Danel Zubia, ikasgela bedeinkatu horretakoa da.	11
bekain bepurua	... bekainetan ere apenas geratzen zaio betilerik.	20
belarrondoko zartakoa, zaplaztekoa	Txist, argi gero, hemen ez du inork inor akabatuko, ez belarrondokoka eta ez beste inola ere!	135
bertan behera alde batera, egin gabe	Irteera bat bertan behera laga.	10
bigantxa behi emea gaztea, txahal urrixa	Nikolas Egidazu du izena, baina Bilintx institutuko bigantxa gazteek Barrabas goitzenarekin ezagutzen dute.	39
bigantxa oker jaietako behitxo erasokorra	...gutxien espero dituzunean etortzen dira bigantxa okerrak erasoan, eta datozen bezala toreatu behar izaten dira, ze erremedio!	131
bortitz gogorra	Andrea sendatzeko, Houstoneko ospitale batera eraman beharko luke, han hiru hilabeteko tratamendu bortitza jasotzera.	21
bost puxtarri ala, zureztat saria!	Bost puxtarri , Mamerto!	28
bukanero pirata	Bukaneroak aise nagusitu dira lehenengo norgehiagokan, sei eta hiru.	96
burrunba astrapala, harrabotsa	...hango liskar, hango atralaka, hango nahaste-borraste, hango zarata, hango burrunba eta hango purrustadekin kokoteraino jarrita...	9
burusoil ile gabea	Neskatilaren traza ikusita, Danel tristatu egin da: itxura ahula, aurpegiko azalaren gaixo kolorea, erabat burusoil dago...	20
burutazio ateraldia, asmazioa	Ikastordu osoan Danel Zubiak antzeko burutazioetan murgilduta segitu du.	131
buruzagi nagusia, gidaria	Ismael zure familian denok hain inutilak zarete? Ala zu kasu espeziala zara? Inutilen buruzagia , alegia?	81
debalde dohainik, musu-truk	Jaialdia debalde egiteko prest dagoen musika talderen bat behar dute.	104
debekatu galarazi, ukatu	Ezin digute debekatu patioan musika emanaldi bat egitea!	90
derrigorrez nahitaez	Egutegiak ia derrigorrez erosi beharko dizkigute.	86
desesperatuta etsia hartuta, itxaropena galduta	Danel desesperatuta dago. Urduri. Oso urduri.	126
desmadratu aldrebestu, lardaskatu	Lide Gonzalezek arrazoi puntu bat dauka. Mamertoren klaseak desmadratu egiten dira sarritan. Irati Li-Mei Zeziagak irakasleari leporatu dio.	28
despiporre dibertsio eskandaluzkoa	Despiporre eta desproposito itzela izan da! Ederki pasatu du mundu guztiak.	115
desproposito zentzugabekeria, alukeria	Despiporre eta desproposito itzela izan da! Ederki pasatu du mundu guztiak.	115
dimititu kargua utzi	Ez, ez, ez, torturarik ez! Asmoa hori bada, dimititu egiten dut!	49
dinbili-danbala dinbi-danba, kolpe eta kolpe	Bateria soloa egin du, din-dan, dinbili-danbala .	116
ditxosozko madarikatua, deabrua	Ximon adiskidea endredatuta dago ditxosozko mailetak prestatzen, antza.	122
egitismo proiektua	Mamerto alferra espezialista da komentario bakarrarekin gelan sekulako porrusaldak sortzeko. Eta gaur ere egitismo horrekin etorri da eskolara, antza.	25
egurrean hasi erasoan hasi, oldarkor	...irakaslea egurrean hasi da klasea hasi orduko.	59




emanaldi saioa	...Hip Hop Fuxion taldea emanaldia musu-truk egiteko prest dagoen ala ez galdetzeko.	91
enbarazu egin oztopatu, traba egin	...nahiz eta batzuk, lagundu beharrean, ia-ia enbarazu egin duten.	113
endredatuta lanpetuta, katigatuta	Ximon adiskidea endredatuta dago ditxosozko maletak prestatzen, antza.	122
engantxatuta katigatuta, eskegita	Berriro telefono alu horrekin engantxatuta zaude?	17
epelduta berotuta, mozkorrik	Balantzaka ari dira, alkoholarekin zeharo epelduta .	119
epiko heroikoa, itzela	Hirugarren final laurdena ere epikoa izan da.	95
erremedio konponbidea, irtenbidea	...gutxien espero dituzunean etortzen dira bigantxa okerrak erasoan, eta datozen bezala toreatu behar izaten dira, ze erremedio!	131
erretxindu sumindu, haserretu, <i>pikatu</i>	Txarly Ruiz de Zarate erretxindu egin da panorama tamalgarria ikusita	95
eskuzabal emateko jarrera duena	Gabonetan jendea eskuzabalagoa izaten da.	89
estrafalario bitxia eta deigarria	Ezagutzen dut. Tipa estrafalario samarra da.	89
falangista faxista, frankista	Otemineitor hau falangista hutsa da!	59
ferratu apatxetan burdinak jarri	Epaile txilibitua por sako hartzera bota du, kristo guztia astoak ferratzer a bidali du eta torneo katastrofikoaren bukaera seinlatu du...	97
gainontzeko gainerakoak, besteak	Eta Tomasito, beti gainontzeko guztiakin diskutitzen ibiltzen den txima-luze komunista sutua.	8
galant handia, dezentekoa, itzela	Nahasketa galanta izango da mundu guztiaren atzetik diru eskean hastea!	84
ganoraz fundamentuz, seriotasunez	Nikolas Barrabas tutorea: Ale, lanera, eguna ganoraz amaitu behar dugu eta!	118
goitzen ezizena, izengoitia	Entzun izan ditut goitzen okerragoak.	39
hezitzaile bideratzailea	Astero baloratu ikasle bakoitzaren portaera, eta eguneroko erritmoa oztopatzen duenari, beste neurri hezitzaile bat aplikatzea.	10
higuin nazka	Ezta okurritu ere nirekin pajak egiten hastea, aditu, Torres? Ze higuina!	80
holokausto hondamendia	Luken Barrakuda: Holokaustora kondenatuta gaude!	115
honezkero dagoeneko, jada	Honezkero sortu dira ikasle eta irakasle arteko liskar eta tira-bira logikoak. Eta kasu batzuetan, pitokeria ilogikoak ere bai.	8
hooligan kirolean, zale amorratua	Klasean hamalau ikasle besterik ez dira, baina tartean hainbat kalabera daude. Adibidez, Bilintxeko hiru hooligan zalapartarienak...	8
huts oso	“Jode, Mandela, zure heriotzak Bilintxeko irakasle guztiak aztoratu ditu. Eta hauek aztoratzen direnean, plasta hutsak bihurtzen dira!”, pentsatu du...	31
indarrak akituta oso nekatuta, unatuta	Izerditan bukatu dute denek, indarrak akituta , paliza ederra hartuta.	122
intentsu bizi-bizia	...Gabonetako oporren atarikoak, benetan intentsuak izan dira Bilintx institutuan.	93
inutil ezgai, baldresa	Ismael zure familian denok hain inutilak zarete? Ala zu kasu espeziala zara? Inutilen buruzagia, alegia?	81




izkina kantoia, txokoa	Badakit. Santo Tomas egunean mahaitxo batekin izkina batean jarri, eta marihuana pastelak salduko dugu!	87
izorra! eman diezazutela!	Izorra!	76
kaballeroso gizabidetsua, jokabide dotorekoa	Ale, ale Danel, zu oso kaballerosoa zara, ez duzu Amaia bakarrik bidaliko!	92
kaiku ergela, tontolapikoa	Ze kaikua zaren!	76
kakusai puzkerti halakoa	Torres: Poxpolina! Narora: Kakusai!	81
kamarada laguna, kidea, burkidea	Apunta dezala Tomasito kamaradak , panfletoak izugarri gustatzen zaizkio eta!	81
kamikaze suizida, ekintzan hiltzen dena	—Lasai, ez gara hain kamikazeak .	17
kapitalisto kapitalista azkarra	Zuekin? Bilintxeko kapitalistoe kin? jo, jo! Seguro ikasbidaia Media Marktera egin nahi duzuela! Edo Ikeara!	41
kaskamotz burumotza, skinheada	Danelek albora begiratu du, eta Txarly Ruiz de Zarate kaskamotz tiranteduna ikusi du, behingoagatik irakasleari jaramon egiten ari dela dirudi	132
katramila nahastea, korapiloa, endredoa	Tipo atsegina da, lasaia, ez da oso hiztuna, katramila gutxitan sartzen dena.	51
kinka larrian egon ataka edo egoera zailean	Ospitale garestia, bidaia garestia, egonaldi garestia... Eta emakume hori diruz kinka larrian dago .	21
kirtenkeria tentelkeria	Putza, Txarly! Kirtenkeria hori esateko hobe zeuden isilik!	29
koipea eman losintxatan ibili, koipea eman	Ez eman hainbeste koipe , Dan, puztu egingo nahiz bestela.	15
koitadu gaixoa	Neskatila koitadua!	20
kokoteraino jarrita leporaino egon, nazkatuta	...hango liskar, hango atralaka, hango nahaste-borraste, hango zarata, hango burrunba eta hango purrustadekin kokoteraino jarrita ...	9
konpentsatu ordaina itzuli	Mila esker. Konpentsatuko dizugu noizbait.	83
koskabilo barrabila, potroa	Badakitelako gizonok, buruarekin baino, koskabiloe kin pentsatzen dugula.	23
koskabiloak eduki gibelaundia izan, patxadatsua	Zuk dituzu koskabiloak!	28
kultu ikasía, landua	Kontua da Simon Egaña mutil kultua dela...	54
kumite karate	Eta azkenerako, erdi jolasean, kumite borroka saioak egin dituzte tatamian.	122
lagatu utzi	Irteera bat bertan behera laga .	10
leporatu errua bota, egotzi	Lide Gonzalezek arrazoi puntu bat dauka. Mamertoren klaseak desmadratu egiten dira sarritan. Irati Li-Mei Zeziagak irakasleari leporatu dio.	28
lerdea dariola adurra, haguna ahotik behera	...bere programa begiratzen duen bitartean, sofán lo geratu bada, goxo-goxo, ezpainetatik lerdea dariola .	123
lubaki trintxera	...sasoi labur baterako bakoitzak bere lubakian gerra-aizkorak lurperatuta.	11
magalean altzoan, sabelaldean	Denak batu ziren bere magalean , herritar guztiek, arraza kontuan hartu gabe.	27



maindire izara, mihisea	Larunbat goizean mutikoari maindireak pegatu egin zaizkio. Eguerdira arte lo egin du.	120
majadero txolina, txoropitua	...hain zuzen, majaderoa ez baita zutik egoteko gai.	109
mesede fabore	Gabilondo, mesede galanta egingo diguzu ardura onartzen baduzu.	82
miatu aztertu, arakatu	Eta bien artean irakasleen gelako bazter guztiak miatu dituzte.	126
moñoño potxolo, erakargarri	U! Imajinatzen duzue Ismael tanga batekin desfilatzen? Oso moñoño egongo da...	44
mugarri langa, marka	Izugarri gustatuko litzaioke mugarri espezial hori gainditzea...	52
nagituta alfertuta, gogo gutxirekin	Eta gaur ere egitasmo horrekin etorri da eskolara, antza. Nagituta , mahaian eseri eta ohar bakarra egin du.	25
nerabe gaztetxoa, mutila-neskatila	...Urgull mendira igotzeko eskaileretan eseri dira, beste hainbat nerabe eta gaztez inguratuta.	119
nortasuna erakutsi ausart jokatu, animoa izan	... nortasuna erakutsi behar duzu, Txarly, nortasuna!	96
odol-jario odol-isuria, hemorragia	...sudurretik odol-jario etengabea dariolako.	112
oholtza tarima, zurezko zola altua	Oholtza gainean aurpegiaren eman baino, nahiago izaten du bastidore arteko lanak egin.	57
onespen onarpena, baiezkoa	...ez dut uste zure proposamen horrek artaburu hauen artean onespen handirik izango duenik.	65
ostatu benta, bidaiarientzako egoitza	Hau ez da ostatua .	80
otarre saskia, otzara handia	Gabonetako otarra pentsatuko dugu.	85
otoitz egin errezatu	Gezurra! Ohera sartu aurretik otoitz egiteko ere behar zaitugu...	82
panparroituta harropuztuta, burgoi	Antxon Ibarbia klasetik atera da, puztuta, panparroituta .	41
pareko alboko, ondoko	Alde Zaharrean, adibidez, Miramar kalean, Rekalde tabernaren pareko atarian, Eguberri egunean, eguerdi aldera, anbulantzia bat azaldu da...	111
parranda festa, gozatzeko jaialdia	Imajinatzen duzu Antxon? Sekulako parrandak egingo genituzke!	80
patilladun patilla luzekoa	Bizkaitar patilladunak grazia egiten diolako, eta punto.	53
patxangero estilo txarrekoa	Eta jakina, ikastetxe batek trikitixa eskola patxangeroaren traza hartzen duenean, malo!	7
peripezia gorabehera xelebrea	Ximon erabat txundituta dago tutoreak kontatuko peripeziekin , eta ilusionatu egin da...	101
perka astindu kolpea eman, <i>letxe</i> bat	Tomasito, berriro ahoa zabaltzen baduzu, perka galanta astinduko dizut! Danba!	28
pitokeria zozokeria, txatxukeria	Honezkero sortu dira ikasle eta irakasle arteko liskar eta tirabira logikoak. Eta kasu batzuetan, pitokeria ilogikoak ere bai.	8
porru eginda leher eginda, sats eginda	Danel porru eginda heldu da etxera afalorduan, lehertuta.	122
porrusalda nahastea, kakanahastea	Mamerto alferra espezialista da komentario bakarrarekin gelan sekulako porrusaldak sortzeko. Eta gaur ere egitasmo horrekin etorri da eskolara, antza.	25



potrojorran ibili denbora galtzen, alferkerian	Ederki damutuko naiz potrojorran ibili izanaz.	15
potxolo laztana	—Eskerrik asko, potxolo . Zorretan nago zurekin.	124
poxpolin neskatila liraina	Torres: Poxpolina! Naroa: Kakusai!	81
predikamendu itzala, prestigioa	Zertarako? Ez dirudi zuen artean predikamendu gehiegi dudanik.	88
profitatu aprobetxatu, baliatu	Argia profitatuz amets bat idatzi dut herri nekatu honen azalean ea irauten duen, badakizu hemen memoria ezabatzen digutela...	18
pronostiko aurreikuspena	...astebururako pilota eta bertso pronostikoak alde batera utzi eta etxeko lanekin jarraitzeko ordua...	53
putza! uzkerra, jode!	Putza , Txarly! Kirtenkeria hori esateko hobe zeuden isilik!	29
putzu harrotu, putzak hartu	Antxon Ibarbia klasetik atera da, putzuta , panparroituta.	41
samar nahiko, aski	Ezagutzen dut. Tipa estrafalario samarra da.	89
sasikume putakume, puñetero	DBHko ikasleak sasikume galantak dira maltzurkeria paseatzera ateratzen dutenean.	39
sos dirua, txanpona	Sos batzuk irabazten ditu.	57
sotil ederra, dotorea	...eta neskatoak gustura onartu zuen keinu sotila .	56
su-eten menia, tregoa	...ikasle eta irakasleek su-etena sinatu dute, sasoi labur baterako bakoitzak bere lubakian gerra aizkorak lurperatuta.	11
sutsu odolberoa, suharra	...gainontzeko guztiekin diskutitzen ibiltzen den txima-luze komunista sutsua .	8
tamalez zoritxarrez	Tamalez , urrutian gerra-danborren oihartzuna sumatzen da berriro.	11
tankera estiloa, itxura	Tankera horretako porrusalda bat antolatzea ez da erraza...	40
taxutu ondu, gauzatu	Idazlan astuna taxutu behar du bihar goizerako.	53
taxuzko ganorazkoa, serioa	Ale, kalentura sexualak alde batera utzi, eta taxuzko zerbait egin beharko dugu.	81
temati burugogorra, egoskorra	—Ze tematia zaren! Ondo da. Aukeran, El Hobbit baino, nahiago dut Carrie ikusi.	124
tenore aldartea, umorea	Amaia asaldatu egin da mutikoa tenore horretan ilusi duenean.	108
tirabira kalapita, ika-mika	Honezkero sortu dira ikasle eta irakasle arteko liskar eta tirabira logikoak. Eta kasu batzuetan, pitokeria ilogikoak ere bai.	8
tirano despota, agintari ankerra	Horrela jartzen zarenean, tirano hutsa zara, Barrabas!	46
tontamentean ezustean, itsumustuan	Asteburua amaitu eta tontamentean iritsi da astelehena, abenduak hogeita hamar.	125
trasteak batu atundu, ordenatu	...laugarren mailako ikasleren batzuk besterik ez dira geratu trasteak batu eta inguru gutzia txukuntzen.	116
traza itxura, tankera	...ikastetxe batek trikitixa eskola patxangeroaren traza hartzen duenean, malo! □	7



txatxu leloa, ganorabakoa	Izan ere, argi ibili: hau ez da nerabe ñoñostiarren arteko istorio txatxu bat.	11
txatxukeria ergelkeria, tentelkeria	Eta txatxukeriak esaten hasten bada, gero ez du inork geratuko”.	132
txilibitu zakiltxo	Narora: Ba, idatzi txilibituarekin , babolio. Hartara zure zakilixuta entretenituta edukiko duzu, eta ez dituzu beste zerrikeria batzuk egingo.	81
txilibitu txistua, silbatoa	Epaile txilibitua por sako hartzera bota du, kristo guztia astoak ferratzera bidali du eta torneo katastrofikoaren bukaera seinالاتu du...	97
txima ile luzea, zapa	Adatsak gehiegi luzatu zaizkiola erabakitzen duenean, amak mozten dizkio tximak makinilla elektrokoarekin	52
txoriburu kaskarina, burubakoa	Ostiralean Danelek klaseko hiru txoriburuekin afaldu du Alde Zaharreko Kebab erdi hutsean.	119
txoropito txoriburua, kaskarina	Ez zara txoropito hauek pentsatzen duten bezain arlotea...	65
txorra lerdoa halakoa!	Txorra!	76
txortan ari larrutan egiten	Ze pasada, txortan ari dira!	23
txotxolokeria sinplekeria, zentzugabekeria	“Antxon Ibarbiak txotxolokeriaren bat esan beharko du, seguru...	131
txuliatu harro-harro ibili, trufatu	Ederki txuliatuko zinateke neskez inguratuta.	16
txundituta mia eginda, harrituta	Ximon erabat txundituta dago tutoreak konturatuko peripeziekin...	101
txuringoa probatu zuringoa gozatu	San Kanutoren txuringoa probatu berri duen mutikoaren itzal babesgabea, hobeto esanda.	109
umel bustirik, malkotan	...hunkituta, emozionatuta, begiak gorri-gorri eta umel-umel .	27
usurero diruzale halakoa!	Barrabas, usurero!	61
xaxatu zirikatu, akuilatu	...tutorea xaxatzen , futboleko hooliganak balira bezala.	40
xomorro bitxo	Agur, xomorro!	50
zabortegi hondakindegia	Lokal hau zure balitz, Markel, honezkero zabortegia emango luke!	80
zakilixut zakiltxo	Narora: Ba, idatzi txilibituarekin, babolio. Hartara zure zakilixuta entretenituta edukiko duzu, eta ez dituzu beste zerrikeria batzuk egingo.	81
zapaburu mukizua, ume moko	Tutoreak ikasgaia amaitzea erabaki du, kontu garrantzitsua tratatu behar duelako laugarren mailako zapaburuekin .	39
zartakoka ukaldika, kolpeka	Ui, ui, ui, Antxon... Zuk eta zure bi gorilek niri ere ahoa zartakoka itxi behar didazue?	137
zer pagotxa! hori bai zortea!, ze mauka!	Iuju! Fieston! Natur zientziak, zer pagotxa!	76
zipitzik ezertxo ere, batere	—Ez dakit zer egiten duzun aitarekin ezkondata. Brad Pittek eta berak ez daukate antz zipitzik .	17
ziztrin baliogabea, ezdeusa	Hamabost euro kalendario ziztrin bategatik?	85
zurrutero edatuna, alkoholzalea	Duela bi ikasturte, Arrasatetik etorritako ikasle batek <i>Mamerto</i> goitizena jarri zion irakasle zurruteroari .	25